

ttipi-ttapa

1992.eko Maiatzak 21

86. zenbakia

dohain banatzen da



**LAXOA: SOROPILETATIK
ZEMENTORA**

EGB BUKATUTA ZER?

O
R
O
N
O
Z
K
O



E
S
K
O
L
A



FORESTALA
AGROPEKUARIAK



HOSTELERIA

**MEKANIKA
SOLDADURA**

Hasi: **14 urtetan**. Zona honetan, eskola honek bakarrik "OFIZIOA" EGB egin ondoren.

Praktikak: Lantegi edo Enpresatan

Jantokia - Erresidentzia

Tfnoa: 592006

Faxa: 592006

zer - non

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/32 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

Urdazubi eta Irurritako bestetako koadernilloa

Bortzirietan, "Euskara Batzordeen Berriak" koadernilloa

33 ELKARRIZKETA: Txepillo: "Soziolinguistika ikastaroa Nafarroan egin den ederrena izan da".

Antton Erkizia

34 ERREPORTAIA: "Urtero Laxoa Txapelketaren edizio berriak jokatzea arras baliagarria da jokua ireaupenerako"

Joxemanuel Irigoien

36 KIROLAK: "Maiatzaren 29an Nafarroako Itzuliaren etapa nagusia Leitza".

38 MERKATU TTIKIA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.200 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak**SOS Nafarroa /Urgentziak**...088/061**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarain515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Maiatzaren 23-24ean**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Maiatzaren 30-31an**, Etxalar, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

Dantzaldiak

► **LESAKA**, maiatzaren 23an IZADI taldearekin (11,30-2,30etara).

► **LESAKA**, maiatzaren 31an DRAKKAR taldearekin.

Deialdiak

► **IGANTZI**, maiatzaren 21ean, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, maiatzaren 28an, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Batzorde Erabakikorraren bilera.

Bestak

► **IRURITA**, maiatzaren 27tik 31ra.

► **URDAZUBI**, maiatzaren 27tik 31ra.

Erakusketak**LEITZA****XII. ESKULANGINTZA ERAKUSKETA**

Kultur Astean barnean maiatzaren 24ean egingen da. Bertan, herri bazkaria, Tolosako banda, eskulanak...

Antzerkiak**IRURITA****UDABERRIKO JIRA-BIRA**

Maiatzaren 29an, 6etan, Pai taldearen «Agujero de juegos» haurrentzat antzerkia.

Bota bertsoa**Estitxu FERNANDEZ**

(Bortzirietako Bertso Eskola)

Gaia: Expo 92

Neurria: Peñaren doinu berria

Sevilla aldetik etorri zaigu
aurtengoan notizia
han bildu dira dirudunak ta
Espainol burokrazia
mundu guztiko kulturak bildu
eman nahirik garrantzia
egoera berezia
badauka bere grazia -bis-
milaka milioi gastatzen eta
mundu erdia ahantzia
goseak dagon jendearentzat
non ote da justizia? -bis-

Hamabosgarren mendea zela
aurkikuntza hura ager
ta Espainolek hartu zituzten
indarrez hainbeste bazter
triskantza hari oraindik ere
eman nahirik hainbat esker
Expo egin dute laster
baina daude oso oker -bis-
zentzu pixka bat duenak behintzat
esango du mila bider
"hori ez dugu ospatu behar
ez dago ospatzeko ezer" -bis-

AGENDA

Zinemak

► LEITZA

Maiatzaren 22an, (Kultur Astean) "Los chicos del barrio" eta "Los rescatadores en Cangurolandia".

Maiatzaren 29an, gaueko 10,30etan "JFK, Caso abierto".

Maiatzaren 31an, 5etan, "Rocketeer" eta 8etan "JFK, Caso abierto".

Kirolak

► URDAZUBI

URDAZUBIKO
V. MOTO-CROSSA

Ekainaren 7an, arratsaldeko 4etan, Nafarroako txapelketarako baliagarria. Bertan izanen dira Mikel eta Javier Zabala anaiak, Mikel Purroi, Stephane Dasse, Bruno Moulinier edota Marc Velez, bertzeak bertze.

Gastronomia

TRUFA TARTA

Osagaiak:

7 arraultze, 250 gr. azukre, 150 gr. irin, 2 tableta txokolate kobertura, litro bat esnegain montatua.

Arraultzeak, azukrea eta irinarekin bizkotxoa egin. Bizkotxoa egiten ari den bitartean, txokolate kobertura urtu egiten da ur pixka batekin ontzi batean eta "baño marian" jarriz. Saltsita hau



Agustin Garcia-k emana
KATTU Jatetxea - LESAKA

frigorifikoan sartu. Hotza dagoenean, txokolate honen

erdia hartu eta esnegain montatua erantsi eta berriro frigoan utzi. Bizkotxoa hoztu ondoren bi kapa egin; bat erabiliko dugu. Moskatel pitin bat bota eta frigoan dugu txokolate eta esnegainez egindako masa hartu eta gainean paratuko dugu bomba baten modura. Geratzen zitzagun txokolatea gainetik erantsi eta adornatzeko in-txaur batzuk eta txokolate xirpila jarriko dugu. Frigoan eduki jan arte.

Baserriko feria



► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 6.500 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 190 pzta/kilo **Zerramak**: 105 -125 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....510
1.koa.....480
2.koa.....460

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....525
1.koa.....500
2.koa.....460
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 370 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 10.000 eta idixkoak 21.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 22.000 eta idixkoak 30.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

✱ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoak garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

Tfnoa: (948) 63 01 55

- BERA



Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA

BERA
DESINFECCIONES

W 11 galdera ilabur



Jesus Prim
Irakaslea Elizondon

- **Ikasleak neskak ala mutilak?** Berdin zait.
- **Ikasleen ohiturak betikoak dira ala aldatzen ari dira?** Euskara adarra aukeratzen dutenen artean nabaritzen ari dira aldaketak.
- **Lanean aritu ala pilotan jokatu?** Bietan gustora.
- **Txapelketak antolatzen ala pilota eskolan?** Laxoa Txapelketetan bakarrik ibiltzen naiz.
- **Pilota ala bertze hobby-ren bat?** Pilota.
- **Gaupasa bat ala zinera joan?** Orain zinera joan eta trankilago bizi.
- **Oporretan Benidorm ala mendia?** Mendia, eguzkia ez zait gustatzen.
- **Iruritako giroa ala Elizondokoa?** Hagitz herritarra naiz.
- **Baztanen euskara hila ala bizirik?** Orain berpizten.
- **Euskal kulturarik bada ala ezta?** Folklore gehiegi.
- **Koral bat ala Negu Gorriak?** Negu Gorriak.


► La rivoluzione de la tradizione

Pottoka
Euskadi - 1992

Plazaratu berria du Amaiurko rockeroak bere iraupen luzeko lehen diska, nahiz eta aintzinetik bertze zenbait talderekin (SS-77, Kiowak, Julio Kageta) batera diska plazaratua izan. Lehenengo harekin ezaguna egin zen Euskalerrian barna.

Oraingo honi, «*La rivoluzione de la tradizione*» deitu dio, Pottokaren izaera berezia izenburuan isladatuz. Diska hau bilduma antzekoa dela adierazi du Pantxok,

Pantxoa
Etxebehere,
"Pottoka",
Amaiurtik
rocka
lantzen



izan ere, bertan agertzen diren zazpi kantak ez bait dira berriak, duela zenbait urte egindakoak baizik. Zuzenean bakarrik aritzen bada ere, diskan Balerdi Balerdi taldekoen laguntza izan du ins-

trumentoetan, baita Josu Zaballarena -Hertzainak taldekoa- akordeioarekin. Baztandarrak ez du fama maite, eta agian horregatik nahiago izaten du konposizioak egitea (nahiz eta urtean

bi bertzerik ez dituela egiten onartu) zuzenean jotzea baino. Halere, noizbait ailegatuz gero, Amaiurko mutilak ez omen du famaren beldurrik.

AITOR

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak


ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK

AMETS LIBURUAK

63 12 67 - BERA



**EUSKALDUNA
JATETXEA**

Tfnoa.: 63 03 92
BERA



Leitzako
XIV. Kultur Astea burutzen ari da egunotan, Leitzako Kultur Taldearen ardurapean. Aste osoa aktibitatez josia prestatua izan da eta nahi zuenak, bazuen zer ikusi, zer dastatu eta zer ikasi. Argazkia: ANTON



ATOR

«AHVren buruaren desagerpena eta bere ondorioak Bidasoa bailaran» gaia jorratu zuten Joseba Marina, Patxo Cereceda, Pello Astiz eta Julen Mitxelorenak, HB eta Biharko Hendaia elkarteak "Etorkizunaren defentsan" antolatutako mahainguruen barnean.

Zabalik dago LEADER planaren laguntza deialdia

Abenduaren 10a bitarte egin daitezke eskariak



Europa Ekonomia Elkartek bultzaturiko plangintza honen helburua, nekazal herrietako garapen ekonomikoa bultzatzea da. Horretarako, Europatik 3.000 milioi pzt. zuzendu dituzte Nafarroaren iparraldeko 61 herritan inbertitzeko. Deialdi honek, pertsona fisiko zein juridiko, udal zein udal-mankomunitate edota edozein motatako fundazio zein elkarte pribatu

aurkez daitezke, eta zonako garapena laguntzeko duen proiektua sartu. Horien artean turismo etxeak, lantegi tikiak, bertako produktuen produkzioa eta komertzializazioa, lan publikoak eta abar. Proiektu hauek, xehetasun eta dokumentazio guziarekin batera, abenduaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira. Halere, laister hasiko da plangintza honen berri emanen duen kanpaina.

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



GAZTEOK BEHRIRO ERE ERREPRESIOAREN BIKTIMA

Maiatzaren 9an JARRAI gazte erakundeko militanteok V. Kongresua burutzen ari ginela ezusteko bisita bat izan genuen. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza kontseilariaren Buesa jaunak bidalitako txakurpilo bat sartu bait ziren kongresua ospatzen ari ginen eskolan.

Buesa jaunaren ustetan JARRAI

erakundea ilegala da eta burutzen ari ginen bilera izkutuko ekintza bat zen.

Duela urte pare bat Entzutegi Nazionalak argi utzi zuen gure erakundea ez dela ilegala.

Erran beharra dago, baita, aipatutako bilera burutzeko eskolako zuzendariaren baimena gurela.

Baina indar errepresiboen helburua bete zen: alde batetik kongresua izorratzea eta bestetik han ginen militante guztiak

fitxatzea.

Guzti hau dela eta, Buesa jauna eta indar errepresiboen ekintza hau salatu nahi dugu, honen ondorioz 23 atxiloteta izan bait dira. Ez al dugu gazteok ustezko demokrazia batean bilera bat burutzeko eskubiderik?

Txosten bat eztabaidatu nahi dugunean, zer egin behar

dugu horrelako ezustek bat ez jasateko? Non dago hemen demokrazia?



Lesaka eta Berako
JARRAI

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idaizi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehenetik ortziralera, 15,30etatik 19,30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA

Asteazken arratsaldeak etxetara bisita egiteko ehunak izanen dira

ALICIA

JANARIDENDA

Foruen Plaza 6, Tfnoa: 630799
BERA

OITZKO UDALA

MALERREKAKO EUSKARA ZERBITZUA

Oitzko Udalak, Malerrekan euskararen erabilera bultzatu eta sustatzeko, Erdi Mailako titulatu bat hartzeko deialdi publikoa ateratzen du.

Deialdian parte hartu nahi dutenak, agiriak aurkeztu beharko dituzte Oitzko Herriko Etxean maiatzaren 26a arte eta ordu bata baino lehen.

Deialdia eta Baldintza Orokorrak, maiatzaren 11ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Interesadunak, baldintza hauek Udal Idazkaritzan eskura ditzake.

Oitz, 1992ko maiatzaren 12an

Oitzko Alkateak

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Herri Urratsera joateko mugako trabak salatu ditu Udalak

Urteroko kontua errepikatu zen aurten: jendea orduak eta orduak esperoan ezin pasatuz

JOXEMANUEL IRIGOIEN

"Argi dago Herri Urrats euskararen aldeko besta izateak sortzen dituela traba guziak" dio Berako Udalbatzaren azkeneko aktan.

Izan ere, aurtengoan ere urteroko kontua errepikatu egin baita Senpererako bidean muga pasatzerakoan. Kontzejal guztiak ados agertu ziren egoera hau salatzerakoan, jendeak zenbaitetan orduak eta orduak pasatu behar bait ditu Lizuniagan barrena bertze aldera pasatzeko.

Ondorioz, Berako Udalak Bortzirietako alkatete eta kontzejal guziak deitu zituen bilera batetara joan den larunbatean (maiatzak 16) eta bertan publikoki salatu egin dute bai aurten eta bai aintzineko urteetan gertatutako bidegabekeria.

Rodriguez de la Fuente saria irabazi duten neska-mutikoak:
Natalia Ordoki,
Koldo Oiarzabal, Itxaso Bilanueba, Ana Isabel Altzugarren, Unai Balberde, Oihana Garmendia eta Imanol Alzuri (GOIKO Arg.)



Labiaga ikastolakoak berriz garaile 'Rodriguez de la Fuente' sarian

Bigarren urtez jarraian, Labiaga ikastolako 7. mailako ikasle talde batek estatutuko Felix Rodriguez de la Fuente lehiaketan, autonomietako lehen saria lortu dute.

Aurtengoan, "Naturgune babestuen eta bere helburuak" izan da komiki

baten bidez azaltzeko gaia eta Labiagakoei, "Babesarik gabe zegoen oihana" izenburuarekin lortu dute aipatutako saria.

Sariak, Santiago de Compostelako unibertsitatean banatuko dira ekainaren 5ean eta taldeko batzuk bertara joan dira.

W ttipi-flash

□ **Piszinako** Zerbitzuen adjudikaziorako epea bukatzeaz dago. Proposamenak, hilabete honen 22 baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxeko idazkaritzan.

□ **Ibardin** auzoko urzikinendako depuradora eta saneamendu lanak burutuko dira, seguruenik, urte honetan. Hasteko, Nafarroako Gobernuak urte honetarako duen Plan-gintzan, sartua agertzen da aipatutako obra eta egitekotan, NILSA enpresaren bitartez burutuko litzateke. Aurrekontuaren arabera, guzira egitea 10.820.000 pzt. kostako litzateke.

□ **Berako** Lanbide Institutoak 25 urte betetzen ditu aurten. Hori dela eta, ikastetxearen izena eta logotipoa aukeratzeko, ideia lehiaketa burutu berri du.

BORTZIRI
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

LESAKA

4 milio t'erdi aurtengoan kirol eta kultur ekitaldietarako

Diru kopururik haundiena, Beti Gazte elkarteak eramanen du

AITOR AROZENA

4.516.562 pztako diru-laguntzak jasoko dituzte herriko kultur eta kirol elkarteek Udaletik, Kultur Batzordearen informarean arabera.

Dirutza honetatik gehien jasoko dutenak kirol elkarteak dira (2.159.816 pztak), kultur elkarteek 1.451.746 pztak jasoko dituzte eta gelditzen diren 905.000 pztak Arte eta Kultura ekitaldietarako dira.

Elkartez elkarte, Beti Gazte bilduko du kopururik haundiena (1.247.182 pztak), herriko lau musika taldeen (banda, kordiolari, txistulari eta abesbatza) artean 1.156.746 pztak hartuko dituzte eta Irain eskolako guraso elkarteak ere 550.000 pztak jasoko ditu. Subentzioa jasotzeko, karreteletan euskara guttienez erdararen pare egon beharko omen da. Ea egia den.



AHVren desagerepenaren ondorioak Bidasoa bailaran aztertzeko Pello Astiz, Julen Mitxelorena, Patxo Cereceda eta Joseba Camino bildu ziren Arrano elkartearen. Denak ados agertu ziren kabezeraren itxierak Laminaciones bezalako akabadoretan ondorioak izanen dituela erratean.

Euskal Herrian Euskaraz...

taldeak, Frantziako Tourra Euskalerritik igarotzen den bitartean euskararen erabilera ziurtatzea eskatzen zuen mozioa ez zen onartu. Halere, PNVk kirol eginkizun hau "ongi hartzea" eskatzen zuen puntua gehituz onartu zen HBren aurkako botoarekin.

Lokal publikoen aldeko Asanbladak

hauen beharra azpimarratu du idatzi baten bitartez. Alhondiga desokupatu zenean Udalarekin egindako bileraren ondoren, zenbait taldek lokala lortu dute baina gainontzekoak "elkartzeko ostatua bertzerik ez izatea" salatu dute Asanbladakoek.

ttipi-flash

□ **Euskadiko** Trikitilari Gazteen X. txapelketaren lehen kanporaketa burutu zen hilaren 17an.

□ **Beti Gazte** elkarteak antolatutako Futbito txapelketan izen emateko epea hilaren 26an bukatuko da. Bortziria osoari zabaldu-riko txapelketa honetan, taldeko 8 lagun apuntatu daitezke Kaminero ostan 1.500 pezetaren truk.

□ **Arkupe** pilotazale elkarteak antolatutako IV pala erdiko txapelketan izen emateko epea hilaren 24an itxiko da, 627518 eta 637241 telefonoetan. Baztan, Malerreka eta Bortzirietako partaideei zabaldua dago txapelketa hau.

□ **Nafarroako** unibertsitaterako autobus zerbitzua Bortzietaraino iristea eskatzen zuen Guraso elkartearen eskariarekin bat egin du Udalak.



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

KAMINERO OSTATUA

Beheko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

XATURETXEA FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ONIN Agentzia

Albistur 53
Tfnoa: 637359
LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zuzarren-en kolaboratzaileak

IRUBIDE

OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

Kultur Egunak ekainaren lehen hamabortzaldian burutuko

Bertzalde, Jubilatuen urteroko eguna eguraldi ederrarekin ospatu zen, aspaldiko partez

PELLO APEZETXEA

Gasna lehiaketa, eremuko egoera sozioekonomikoaz mahai ingurua, antzerkilariak, kantu kontzertua, alkoholari buruzko solasaldia, ipuin lehiaketa, haurren marrazki erakusketa, etabar izanen ditugu herrian ekainaren lehen hamabortzaldian. *ttipi-ttapa* honetan bertan, eta bazterretan itxekiko dituzten karteletan ikusi ahalko ditugu xehetasunak.

Ezinduentzako zahar etxea noiz?

Donezteben Malerrekarako eraikiko denaz gain, Bortzirietan bi proiektu dira, Lesakan etxe berria egitekoa, eta Beran orain-



75 bazkaldarrek parte hartu zuten jubilatuen egunean, aurtengoan eguraldi ederrarekin gainera

goa haunditzekoa. Azken honetan sartuko dira, Berako Udalarekin batera, Arantza, Etxalar eta Igantzikoa. Nafarroako gobernuak ez omen du, ordea, denak denbora berean egiteko ahalmenik, bata

burutu arte bertzeak zain egin beharko duelarik. Zeini eman lehentasuna eta zein gelditu, ondorioz, azkenerako?. Jakitun Bartzordea sortu dute, Gobernuari gai horretaz informazio emanen diona: Bortzi-

rietako mediku bat eta Gizarte Laguntzailea, Malerrekarako mediku eta Gizarte Laguntzailea, arkitektoa eta Gizarte Ongizateko zuzendariordea. Jende talde horren eritziak erabakiko du, dirudienez, non hasiko diren lehenbiziko obrak.

Jubilatuen Eguna

Maiatzaren 12ak, berriz ere, bildu zituen jubilatuek elkarrekin bazkaltzera. Gehienetan eguraldi hotzak inguratzen badu ere bilkura hori, oraingoan giro goxoaz gozatu ahal zuten 75 bazkaldarrek. Gero, Herriko Plazaren nagusi izan ziren arratsalde osoan, bazkalondoko dantzaldia beti bezala luzatu bait zen.



Legia 11 - 63 06 64 BERA

SAROBEOkindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA


EROSLE LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

KOXKONTA



Sagardotegia Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

IGANTZI

Hamabi urteak arte herriko eskolan ikastea

Halaxe eskatu dute Guraso Elkarte eta Eskola Kontseiluak

OSKAR TXOPERENA

Garrantzisua benetan hartutako erabakia. Gaia betikoa da: herriko eskolan irakaskuntza urteak ahal den gehien luzatzea. Erabakia Bortziriak mailan hartua izan da, herri bakoitzean zer eskatzen den zehaztu. Igantziri dagokionez, 12 urteak arte bertan geratzea eskatzen zaio Nafarroako Gobernuari. Bide batez eskatzen da baita, 18 urtearteko irakaskuntza, batxilergoa barne, Bortzirietan egin ahal izatea. Idatzia hau Udaletara ere bidali da onar dezaten.

Ferrategi berria Bentan

Bentatarrek eskatuta Udalak ferrategi berria



Eguraldi ona aprobetxatuz jendea fuego hasi da belarrean.

Argazkia: KARMELE

eginen du Bentan. Azien da ferratzeko leku egokirik ez izateak bultzatu omen die eskaera egitera. Lekua ere erabakia omen dago: Larritzeko bide gainean. Badirudi nekazaritzak badiela oraindik bezerorik.

Akordioa Telletxearen terrenoaz

Bere garaian Arau Subsidiarioen onarpena ia-ia geldiarazi zuen Ignacio Telletxeak paratutako erreklamazioak. Orain,

auzotarrak, Udala eta Telletxea akordiora iritsi dira bertan etxerik ez egiteko. Denen artean erosi diote terrenoa, bertan etxea egin ez gero auzo osoa itsu geratuko baitzen eta beheko etxe berriak aterabiderik gabe gainera.

Harrobiaren eskaera

Harrobiko jabeek eskaera bidali diote Udalari, harrobi ondoan dauden komunalak erabiltzeko nahia adieraziz. Udalak bere aldetik, garbi dauka komunalak ez dituela salduko, eta beraz, bertatik ateratako harriaren kanona kobratzea ikusten dute bidezkoena. Hori dela eta, ikusten hasiak dira kanpoan zer kanon ezartzen zaion kaso hauei.

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia



Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

ALBARTETXEA

JATETXEA

Alicia eta Carmenek zuzendua

Antoiu 26 - Tfnoa: 627622
LESAKA

IRAGARKI HAU 5.200 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA

PUBLIZITATERAKO

ttipi-ttapa ERABILIZ GERO



KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Egunko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA



ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat
arratsaldetan
zabalik


Pistak enbreatzeko laguntza ukatu digute

Alliren gobernuak egin dituen murrizketak direla medio

JON LARRETXE

Aldizkari honetan bertan iragarri genuen aurten goan pistak enbreatzeko laguntza izanen zela, izan ere hala azaldu bait zien Nafarroako Gobernuko lehendakariordea den Sanz jaunak udaletik joan zen ordezkariari: Juan Migel alkatea eta Xabier eta Bizente zinegotziei.

Bilera horretan iazko aurrekontuak mantenduko zituztela azaldu zieten eta ondorioz Arantzako proiektuan denetariakoak zirenez errex sartzen ziren; hala ere Alliren gobernuak murrizketa ezarri zuen, 500 milioitik erdira edo jeitsi zuen. Murrizketa hau eginda ere, diru kopuru ho-



Aurten ez da laguntzarik izanen pistak enbreatzeko

nekin, Arantzako pistak sartzen ziren. Baina hara non, orain bertze murrizketa bat ezartzen duen. Hasieran 500 milioi zirenak 150ean utziz; eta oraingoan bai kanpoan gelditu garela. Beraz hu-

rrengo urtera espetu behar.

□ **Guraso** elkarteak aurkeztu zuen mozioa Udalak ahobatez onartu zuen. Bertan unibertsitate publikorako garraioa dohainik izan dadila eskatzen zaio gobernuari.

□ **Udaberriko** Jirabira barnean Arantzan antzerkia izanen dugu «Kukubiltxo» taldearen eskutik. Antzeztuko duten lana "Ialgi hadi plazara" izeneko da, maiatzaren 23an egingen dutelarik Arantzako karriketan zehar.

□ **Bortzirietako** Hiri Hondakinen Mankomunitateak, maiatzatik aurrera kristalak bertze zaborretik bereix bilduko dituela abisatu du, beraz, horretarako dauden ontzietan bota.

□ **Euskal** Herrian Euskaraz-ek aurkeztutako mozioa onartu du Udalak. Bertan, Frantziako Tourra Euskalerrian dagoen bitartean euskararen presentzia ziurtatzea eskatzen da.

ATERPE
jatetxea

Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA



ESTETIKA • SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA



BODA
KANPAINA
1992

* LORE NATURALAZ EGINDAKO ADORNOAK, ESKULANA DOHAINIK ETA LANDARE NATURALAK ALOKATZEA ELIZETARAKO PREZIO HAGITZ INTERESGARRIETAN.

* LOREAK ETXERA ERAMATEN DIZKIZUGU.

* LORE IDORREZ EGINDAKO ZENTROEN ALOKAIRU ETA SALMENTA, JATETXE ELA ELIZEI.

* LORE IDORREZ EGINDAKO DETAILEAK, SASKITXOAK, PERFUMEAREKIN, ETAB... BODETARAKO.

* AURREKONTUAK ESKATU, KONPROMISORIK GABE.

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42 - LESAKA

SARA

Dantzari Ttiki eguna eguraldi ederrarekin iragan zen

Bertzalde, Herri Urrats gauan sekulan baino jende gehiago izan ginuen

OLHAIN ELKARTEA

Aurten 1.200 hurrek parte hartu dute dantzarien elgarretaratze hortan. Eguraldia ere alde ginuen, emaiten ziola bestari indar eta oldar. Ekitaldiaren idekitzea goizean hamekak irian egin zen herriko plazan. Agurraren ondotik Xiberoko dantzen preziazteko parada izan ginuen baita Sarako eskola elebiduneko hurrek emaniko bertsuen entzutekoa ere. Bazkaldu ondoan hurrak joan ziren lerro lerro errebote berrirat, txistu, gaita eta txirula lagun. Arratsalde osoan ekitaldi herrikoi bat eskaini zaukuten eta ikusliarrak ere inguruko herrietarik jinak ziren.



1.000 haurretik goiti parte hartu zuten maiatzaren 8an ospatutako Dantzari Ttiki Egunean

JOXEMANUEL

Herri Urratsen berri

Iragan maiatzaren 9an izan ginuen Gaupasa Herri Urratsen karietarat. Eztugu berriro egitaraua aipatuko bainan orroitaraziko dugu herriko plazan ez gi-

nuela sekulan hoinbertze jende ikusi. Zerbaki zehatzik ezin badugu eman, erran dezakegu borts edo sei mila zirela eta eskertu dezakegu molde hortan euskararen alde egin urratsarengaitik.

Biharamunean, Senpereko aintziraren inguruan 80.000 lagun baino gehiago biltzen ziren beti urrats bezala beren sustengua ekartzeko eta euskararen aldeko atxikimenduen adierazteko.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI

Beatrix
ILEAPAINDEGIA
San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Nerea *Cinetakoak*
San Miguel 2, DONEZTEBE

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

Mendi markatzea egin da berriki *Elkarriko*

Bertzalde, jende pila hasi da etortzen Leurtzara

TXEMA URROTZ

Oitz, Urrotz eta Donamariakoa den eta *Elkarriko* deitzen den mendiko zuhaitzak markatzen aritu ziren gobernuko mendi guardak eta herri bakoitzeko bi pertsona. Zuratakoak eta balio ez duten landareak markatu ziren, horrela, garbitu eta bakantzeko.

Jendea Leurtzan

Aurtengoz ere hasi da jendea etortzen Leurtzako urtegitara, aste santuan hasi eta astebururo, eguraldia ona izanez gero jende pila etortzen delarik.



Leurtzako urtegitara gero eta jende gehiago etortzen da

ARTXIBOA

1.500 milioi...

pezeta gehiago eskatu dizkio Udalak Nafarroako gobernuari, N-121 karre-

teraren hobekuntzan inbertitu dezan. Aurtengoz, 1.000 milioi bakarrik omen daude aurreikusiak hone-

tarako, eta gehiena Sunbillaiko bariantea (iazko aurrekontuetan ere sartutakoa). Baita, Baztan eta Oierregiko udalek Belateko tunelaren proiektuari egindako alegazioak ere onartu ziren azken plenoan.

W ttipi-flash

□ 207 biztanle ginen herrian urte hasieran, hauetatik 119 gizon eta 88 emakume.

□ Irrati Mankomunitatea sortzeko sartutako mozioari baietza eman zitzaion.

BEINTZA-LABAIEN

Ia 9 milioi intzineradorea moldatzeko


Bertze 5 urteren buruan tokiz aldatzeko akordioa ere hartu du Udalak

PATXI OTXANDORENA

Intzineradorea Beintza Labaienen egitea erabaki zenean, Udalak, baldintza bat jarri zuen: "intzineradorea dagoen lekuan egoteko baimena ematea, baina, erabilgarri irauten duen bitartean". Egin zenetik 5 urte pasatu direnean, oraingo hau da izan duen aberiarik nabarmenena. Modu honetara, Nafarroako gobernuak orain egin beharreko moldaketa hau "mantenimendu obratzat" jotzen duen bitartean,

Udalarentzat, 9 milioietako obra "mantenimendua" baino zerbait gehiago ere bada. Dena dela, akordio baten arabera zera erabaki du Udalak: Bertze 5 urteren buruan intzineradorea Labaindik aldatzea eta bitartean, zaborrak desegiteko bertze sistema eta tokia bilatzea. Aldiberean, arazo honi soluzio amankomuna bilatzeko Baztan eta Bortzirietako Udalekin harremanetan hastea ere erabaki zuen Udalak.

Aipatu azkenik, Nafa-



KARMELE

arroako Gobernuak "mantenimendu obratzat" hartzen duenez moldatze lana, ez duela diru-laguntzarik

luzatuko eta koste osoa intzineradorea aprobetxatzen duten herrien artean ordaindu beharko dela.

DONEZTEBE

Laugarren adinekoak omenduko dira maiatzaren 30ean

Arkupeak antolatutako ekitaldia, 85-90 urte bitarteko 250 lagunei eskeintzen zaie

TXEMA ALDABE

Arkupeak elkarteak eta Nafarroako Gobernuak antolatuta, Baztan, Male-rreka, Bortziriak eta Leitzaldeko laugarren adinekoiei (85 eta 90 urte bitartekoak) omenaldia eskeiniko zaie Donezteben hilaren 30ean.

Goizeko 9,30etan, hamasei autobus aterako dira herrietatik Doneztebera eta 10etan txistulariak arituko dira. 11etan Bordatxon Iruñeko arzobispoak eta zonaldeko apezak emanen duten mezan eta ondoren, Azpillaga eta Garmendia bertsolariak eta Nagore anaiak joteroak, baita ere Zubietak eta Iturengo joal-dunak, txistulariak eta txaranga arituko dira. Omenaldira, Nafarroako gober-nuko lehendakaria, Ongi-zate Sozialeko departa-mendu guztia eta eskual-deko alkateak etorriko dira. Bazkaria Doneztebeko eskolako frontoian egingen da 2ak aldera, 3.000 pezetan truk eta 5etatik 8etara, Amalur taldearekin dantzaldia izanen dute Borda-txo dantzalekuan bertan.

Meza, Iruñeko arzobispoak eta zonaldeko apaizek emanen dute Bordatxo dantzalekuan. Beraiekin batera, zenbait pertsona-litate ere hurbil-duko dira Doneztebera.



AGESTA



KARMELE

Osasun zentroan obretan ari dira

Orain artekoa ttikiegia gelditu dela eta osasun zentroa haunditzea erabaki zuten. Lehengo zerbitzuetaz gain, obra berriarekin dentistarentzat txoko bat antolatzeko probextuko

da. Honetaz gain, almazena, guardian daudenentzat sukalde ttiki bat eta biblioteka ere egingen dira. Hasieran uztailerako bukatu behar bazen ere, zer-bait atzeratuko dela dirudi.

W ttipi-flash

□ **Burdeoseko** feriara autobusa antolatu du CANek hilaren 23rako. Autobusa goizeko 7,15etan aterako da eta bidean gosaldutako ondoren, 10ak aldera iritsiko da Burdeosera. Herrira itzulera gaueko 10,30ak aldera izanen da. Bidaia eta sarreraren prezioa: 1.000 pzta.

□ **Zebra** pasabideak azkenean paratu zituzten herrian zehar. Orain badira bertzelako kejak, errate baterako, eskola ondoan dagoen pasabidean eskolako zenbait irakaslek kotoxa aparkatzen dutelako.

□ **Doneztebeko** Osasun zentroan pediatrik egunero kontsulta izatea eskatu zaio Oinarrizko Osasun laguntzako zuzendaritzari. Momentuz, pediatria berria hilaren 25ean hasiko da lanean, astelehen, asteazken eta ortzegun goizez, gainerako egunak Leitzan egonen baita.

□ **Odol emaileen** Eguna ospatuko da ekainaren 7an Donezteben. 3.000 pertsona inguru bertaratzea espero da.



Estilo propioz egindako arropak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE




ARROPA ETA OPARI DENDA

Tfnoa: 451540

Mercaderes 9

DONEZTEBE



URDAZUBI

Maiatzak 27, 28, 29, 30 eta 31an

Asteazkena 27, "Salvatore Bezpera":
8etan Herriko Etxetik botako den altxaferuak besten hasiera emanen du.
9,30etan gazteen afaria (txuritabeltxak) eta **gauetz** dantzaldia MODESTOrekin.
Ortzeguna 28, "Salvatore Eguna":
10,45etan altxaferuak eta ezkiljotzea herriari itzulia emanen. **11etan** Meza Nagusia eta ondotik Udalak eskeinitako aperitibo plazan; **5etan** Pilota partida eskuz: Benjaminak; *Iñaki Atxa (Elizondo)-Xanti Ibargarai (Erratzu), Patxi Jaurena-Julea Huarte* Urdazubitarren kontra; Haundiak; Kepa Leiza (Ituren)- Jaime Urrutia (Erratzu), Jabier Otxoteko (Lesaka)-Unai Apeztegia (Ituren) kontra. Gero dantziariak ATXULAIko taldearekin; arratsalde eta gauetz dantzaldia DRINDOTS taldearekin.

BEOTXEA

JATETXE - HOSTALA

PAELLA tan ESPEZIALDUAK

Tfnoak: 599114 eta 599043 - **URDAZUBI**

PEPITA OSTATUA

Janari Denda

Tfnoa: 59 90 27 - **URDAZUBI**

LAPITXURI

**DISKOTEKA • HOSTALA
 DANTXARINEA**

Bautista Ariztia

Harategia

Tfnoa: 59 90 08 - **URDAZUBI**

Rosa Mentaberri

Pelukeria

Tfnoa: 59 91 29 - **DANTXARINEA**

INDIANOA-BAITA

Jatetxea

Tfnoa: 59 90 21 - **URDAZUBI**



Urdazubiko gazteak dira herriko besten antolatzaileak.

Ortzirala 29, Hauraren Eguna:
11etan Dianak Dantxarineko auzoan MODESTOrekin eta haurrentzat Gaztelu Haizatua

eta zezen mekanikoa (Pista Libre-Gunflys) taldearekin 1ak artio eta arratsaldeko 5etatik 8etara, ondotik txokolatada. Arratsalde eta gauetz dantzal-

dia DRINDOTS taldearekin.

Larunbata 30:
11etan Urdazubiko X pilota txapelketaren finala; **arratse-**

ko 9,30etan zikiro jatea, gauerditik aintzinera gaupasa DRINDOTS taldearekin; goizeko 6etan herriko gazteen artean zinger-jatea.

Bazter-etxea Benta

Tfnoa: 59 90 48 – DANTXARINEA

BENTA PELLO

Ostatua – Autozerbitzua

Tfnoa: 59 90 49 – DANTXARINEA

ZUBIONDOA

Ostatua – Autozerbitzua
 Larrua (Txaketak, Boltsoak...)

Tfnoa: 59 90 41 – DANTXARINEA

ETXELEKUA GASNATEGIA

ARDI ETA BEHI GASNA
 ETXEKO ZENBERENA

Zugarramurdiko karretera, Tfnoa: 59 91 69
 URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES

- Luzerna
- Agotza eta lastoa
- Luzerna eta pentsuen granulatuak

SALMENTA ETA EXPORTAZIOA

GARRAIOAK

Tfnoa: 59 91 34
 URDAZUBI

BAR FELIX

ZERAMIKA - JANARI DENDA

DANTXARINEA



Atsulai Dantzari
 Taldea, Urdazubi,
 Zugarramurdi eta
 Ainhoako hurrez
 osatua dago. Iazko
 maiatzaren 9an
 dantzatu zuten lehen
 aldiz, Urdazubiko
 bestetan.
 Argazkia: ALIZIA

Igandea 31:

5etan Euskal Indar Probak:
 txingak, zakulariak, aizkola-
 riak, korrikalariak, arpanlariak
 eta sokatira "Arraiotz eta

Arantza", tartean Senpereko
 ZIKIROLATZ dantza taldea
 eta ondotik bertsolariak: Se-
 bastian Lizaso eta Iñaki
 Murua. Gaijartzailea: Txomin

Amorena. **10etan** errifaren
 zozketa.

Arratsalde eta gauez dan-
 tzaldia DRINDOTS taldeare-
 kin eta ondotik Pobre de Mi.

Oharra: Besten antolatzaileek,
 bestetan gerta dai-
 tezkeen istripuetaz ez da kargu
 eginen.

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karreteran, 3. km
 Tfnoa: 59 91 31 - **URDAZUBI**



ANGEL BENGOTXEA
ERAIKUNTZAK

Tfnoa: 59 91 66 - **URDAZUBI**



BENTA
CASTRO

Camping
Ostatua
Autozerbitzua

Tfnoak: 59 90 58
 59 90 11

DANTXARINEA

MENTA
Jatetxea

Tfnoa: 59 90 20

DANTXARINEA



MIKELEN BORDA

Jatetxea – ostatua – Autozerbitzua

Tfnoa: 59 90 45 – DANTXARINEA

MAITAGARRI

Ileapaindegia

Tfnoa: 59 90 54 – DANTXARINEA



Jatetxea

Erretegia

Tfnoa: 59 90 42 – URDAZUBI

JESUS BENTA

OSTATUA

Tfnoa: 59 90 17 - DANTXARINEA

CARMENTXU PELUKERIA

Tfnoa: 59 90 28 - URDAZUBI

Berriak

Bortzirietako

Euskara

Mankomunitatearen

Argitalpena

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa



BAI, ERRAN!

EUSKARAZ EROSI, EUSKARAZ SALDU

Zure zerbitsua euskaraz eskaini

BORTZIRIETAKO EUSKARA BATZORDEAK 5

“Euskara Batzordeen berriak” plazara irekitako leihoa

Seguraski denok entzun duzue noizbait Euskara Batzordearen izena, baina seguraski askok galdetuko diozue zuen buruari zer ote den hori, edo zertarako balio duen horrek.

Eskuartean daukazuen aldizkaritxo honen bitartez, Euskara Batzordeen zere-

ginaren berri emanen dizuegu, zer garen eta zer egiten dugun azalduz.

Aurkezpen gisa, erranen dugu Euskara Batzordean euskararen eta euskal kulturaren alorrean aritzen garen talde, elkarte eta pertsonak biltzen garela, eta parte hartzeko prest dagoen

edozeinentzat irekia dagoela. Gure lana euskara eta euskal kultura bultzatzea eta indartzea da, euskara herriko xoko guztietara zabaltzea, herrietan euskararen egoera normalizatzeko asmoz.

Gure hizkuntza herriko esparru guztietara zabaldu

nahi dugunez, herriko eremu eta sektore guztietan eragin beharko dugu eta horretarako behar-beharrezkoa da ahalik eta talde eta pertsona gehien biltzea Euskara Batzordeetan, euskara zabaltzea eta sendotzea denon lana baita.

Gure lanaren adibide gisa, egun hauetan egingen dugun kanpaina dugu. “Zerbitzuak euskalduntzeko kanpaina” izena eman diogu eta horixe da helburua: denda, banketxe, ostatu eta abarretan euskararen erabilpena indartzea, bai ahozkoa eta baita idatzia ere.

Horretarako, zerbitzuetan aritzen direnekin hitzegingo dugu, euskara ahal duten guztia erabil dezaten eskatuz, eta aldi berean, gure laguntza eskainiz. Hala ere, kanpaina honetan denok laguntzen ahal dugu zerbitzuetan ere euskara erabiliz. Erreza da eta euskarari mesede handia egingo dio.

Honelakoxea da gure lana eta argi utzi nahi genuke Euskara Batzordeak irekiak direla eta euskararen alde zerbait emateko prest dagoen edonorrek baduela tokia gure artean, beraz, **animatu eta etor zaitzte gurekin lanera!**

Berriak

Belen Arribillaga: «Zerbitzuetan ere bidea ireki behar diogu euskarari»

Hilabete hone-
tan bertan
zabalduko da
Bortzirietan
“Zerbitzuak
Euskalduntze-
ko Kanpaina”.

Banketxe,
denda, ostatu
eta abarretan
euskararen
erabilpena
indartzea
helburutzat
duen kanpaina
honek, euskara
normalizatzeko
eta euskarara
ohituzatzeko
bultzada eman
dezake.

Honetan,
denok lagun
dezakegu zer-
bitzuetan ere
euskara
erabiliz.
Zerbitzu haue-
tariko batean
aritzen zaigu
lanean Belen
Arribillaga, eta
berarengana jo
dugu Lankide
Aurrezkiaren
izaera euskal-
duna kontutan
hartuz.



KRISTINA BOAN

Orain artean bezeroei euskarazko zerbitzurik eskaini al diezue?

Bai. Gure lehen-
dabiziko hitza beti
euskaraz da, eta gai-
nera, gure papera
guziak bi hizkuntze-
tan izaten dira.

Jendeak nola erantzun du?

Euskalduna de-
nak euskaraz egiten
du, eta erdalduna de-
nak, batzuk ere erra-
nen dute: “*Barkatu,
baina ez dakit eus-
karaz*”. Gainera, er-
daldun hauen artean,

batzuk euskara ez
jakiteagatik barka-
mena eskatuko dute.

**Zure banke-
txearen izaerak la-
guntzen al du pro-
duktua euskaraz
saltzerakoan?**

Bai, gure kuxak
badu izaera berezi
bat. Euskara zerbi-
tzua baduenez, eus-
kara eskatzen duen
klienteari behar be-
zalako serbizioa
emateko, *enpresa
hiztegia* eta *finantza
hiztegia* bidaltzen
dizkigute, erran be-
zala, euskara bultza-
tzeko eta egiten den

euskara ongi egite-
ko. Gure lanpostuko
oposiziotara aurkez-
terakoan, ematen di-
zuten baldintzen ar-
tean, euskara jakin
behar zen solasean
eta idatziz.

**Badakizu nola
burutuko den zer-
bitzu kanpaina?**

Erran digutenez,
pegatina batzuk iza-
nen dira leihatilan
edo eskaparatean
paratzeko, eta ber-
tan, HEMEN EUS-
KARAZ! jarriko du;
gero, rotulo gisako
batzuk izanen dira
eta hauetan ere,

aukera ematen zaio
bezeroari lehendabi-
ziko hitzak euskaraz
egiteko, eta berak
nahi badu euskaraz
segitzeko.

**Banketxe batek
kanpaina honetan
gainera, komer-
tzioak baino gehia-
go eskain dezake?**

Orain artean eus-
kara sukaldekoa zen,
etxe barrenean egi-
tekoa. Organismo
publikoetan erdara
ikusi dugunez, idu-
ritu zaigu garrantzia
gehiago duela ho-
rrelako tokietan er-
darak eta ez zaigu
hagitz egokia iduri-
tzen euskaraz ari-
tzea.

Bertzalde, ban-
ketxera herritar
guziek hurbiltzeko
aukera dute eta ez
inguruko bizilagun-
ek bakarrik. Horre-
gatik, bai iduritzen
zait kanpaina honek
banketxe batean
jendearengan eragi-
na izanen duela.
Izango duen eragi-
na, banketxeak nahi
duenaren arabera
izanen da. Hobena
litzateke edozein
banketxek hitzak eta
paperak euskaraz
aurkeztea eta horre-
lako kanpaina batek
akaso lortuko du.

Berriak

Txaloketa



ANTON

Euskara ikastera eta euskaraz alfabetatzera animatu diren lagun guziak, eta gainera, ikasten dutena kla-

setik kanpo praktikatzen dutenak. Eutsi horretan. Ez da bakarrik animatzea, segitu egin behar da. Arranopola!

Herriko Plaza

Duela 10 urte, hasi berriani osasunlanbideetan, Errioxarekin mugatzen duen Nafarroako herri itiki batean gertatu zen. Uda erdi aldean, beroa. Siestarako ordu horietan tinbrea jo zuten; atea ireki ta kanpotar batzuk: Adineko andre bat, ez ongi. Guzi hau betikoa izanen litza-teke eurek alemanak izan ez balira. Erdaraz ez jakinki eurek, nik alemanarik ere batere ez. Elkar ezin entenditu, sendatzeko zailagoa oraindik. Elkarrenganako komunikabidea ozto-



poz beterik.

Berriz arazoak euskararekin gure lurralde honetan: euskara eta osasuna astunagoa eginez. Aski ongi ikusi dut Bortzirietan. Herri batean lanean hasi eta zein zen jendeak erraten zuen lehena: *zeinen ongi, gainera euskaraz badakizu!!*



Servicio Navarro de Salud
Osasunbidea

Nafarroako Gobernua, lanpostu deialdietan euskara kontutan ez hartzeagatik. Ondorioz, Arantza-Igan-

tziko mediku-erizainak erdaldunak dira. Errua ez da hauena, euskara eskatu ez duen administrazio-arena baizik.

MANUEL ECIOLAZA
Lesakako Medikua

Osasun Departamentua eta euskara

Heldu zaigu mediku berria Arantzara. Euskaraz ez zekienez Nafar Gobernuak euskalduntzera bidali du 9 hilabetez, hemengo alkateen bultzakadaz. Bitartean, bertze mediku bat. Eta hau dena azterketan administrazioak, ahantzita, euskara eskatu ez

zuelako. Eskerrak "Ley del Vascuence" delakoaren babespean gaudezila, bertzela... Nola molda dezakegu gure burua gurea ez den bertze mintzairan, osasun gaiei dagokionez? Gure herrietan ere ixtoriok alemanei bezala gertatu behar beti?

Pertsonaiak



M^{re} EUGENIA SAGARDOI
Etxalarko botikaria

Telefonoz deitu diodanean, "Bai" izan da erantzuna. Euskaraz nahikoa ongi jabetu dela agertzen du.

Orain Bortzirietako Euskaltegian euskararen zortzigarren urratsa burutzen ari bada ere, urte saila joan da ikasten hasi zenetik. Farmaziarako ikasketen denboran, Iruñean, Arturo Kanpion Euskaltegian bi urtez aritu eta gero, Otsagin, bere sorterrian, aukerarik gabeko hiru urte joan zitzaizkion.

Etxalarren Botikategia ireki ondoren, astean lau egunetan Bera edo Lesakara joanez hiru urte eman ditu, eta Lazkaon hila-beteko ikastaro trinkoa.

Berriak

Liburuak

Denborapasa



«Behi euskaldun baten memoriak»

Egilea: **Bernardo Atxaga**
Argitaratzen du: **Pamielak**
180 orr., 1.000 pzt.

Euskara dotore eta ulergarriak, behi maitagarri honen bidez, bizitza eta esistentziaren metafora eskeintzen digu Atxagak. «Zer uste huen zela bizitzea? etzan etzanda jarri eta dena sinistea?



«Haltzak badu bihotzik»

Egilea: **Iñaki Mendiguren**
Argitaratzen du: **Elkar**
103 orr., 700 pzt.

Irakasle eta ikasle baten artean sortutako harremanak kontatzen dituen nobela laburra da, hizkuntzaren erabilpen zoragarria, landua eta aberatsa eginik.

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko lauki-taula osatu ondoren, Etxalarren bilduriko erran zahar bat ageriko zaizu.

Ur etorri handia.

Loaldi sakon.

Biguindua.

Baztango herri batean.

Behiaren erro.

Gipuzkoa erdialdeko herria.

Ihauterietako estalki.

Mila milako kopurua.

Bortzirietako herria.

D	7	F	12	B	5	D	1	B	1	E	12	A	2
E	9	A	9	F	4	D	13	B	6	D	9	F	13
F	6	A	11	D	14	E	15	A	4	A	14	E	13
F	2	A	8	F	14	B	2	E	6	B	7	F	9
D	4	A	10	D	8	E	3	B	10	D	15	F	7
E	15	A	3	B	12	D	10	F	1	F	8	B	4
E	2	A	6	E	7	E	10	A	15	D	3	F	10
A	1	B	11	D	12	E	4	D	2	B	13	A	12
F	15	F	3	A	5	B	9	B	14	D	5	E	11

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
A															
B															
D															
E															
F															



IRURITA

Maiatzak 8, 9, 10, 11 eta 12

ASTEAZKENA, 27 (bezpera):

Eguerdiko 12etan: Altxaferua eta txistulariak.

Ilunabarreko 9etan: Ezkil jotze soinuari-
 rien ibilaldia.

12etatik 3ak arte: Mozorro DANTZAL-
 DIA plazan, «INGUMA» orkestarekin.

ORTZEGUNA, 28 (Salbatore)

Goizeko 9etan: Goiz argi soinua

11etan: Meza Nagusia.

12etan: Herriko DANTZARIEN erakus-
 taldia.

Eguerdiko 1etan: «INGUMA» orkestaren
 soinualdia.

8etatik 10etara

eta 12etatik 3etara: DANTZALDIA, «IN-
 GUMA» orkestarekin.

ORTZIRALA, 29 (Haurren eguna)

Goizeko 10etan: Argi soinua, herriko txis-
 tulari eta kordionistekin.

Eguerdiko 1etan: «INGUMA» orkestaren
 soinualdia.

BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak:

- Luis XV – Regence
- Luis Felipe
- Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. kma, Tfnoa: 45 23 74 – IRURITA - BAZTAN



2etan: Oillo jatea, haurren-tzat. **2,30etan,** Zaharren bazkaria, «Gure Kaiola» elkar-tean. **Atsalde eta arratsean:** Dantzaldia.

LARUNBATA, 30

Goizeko 10etan:Argi soinua, herriko txistulari eta kordio-nistekin. Eguerdiko **1etan:** «JATOR» taldearen soinu-aldia. **2etan:** ZIKIRO JATEA Atsaldeko **5,30etan:**TXI-RRINDULA laisterketa (Apo-teri itzulua), alebin, infantil eta kadete mailan.

8,30etatik 10,15tara eta 12,30etatik 5ak arte: GAU PASA, «JATOR» orkestare-kin.

IGANDEA, 31

Goizeko 10etan:argi soinua. **10etan:** XXXIX SALBATORE TROFEOA



OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua



BEHIN

Autozerbitzua

Tejeria karrika

Tfnoa.: 580564

IRURITA

AROZ BERRI

SAME

TRAKTOREAK
 POTENTZIA ETA TEKNOLOGIA

EUROPAN SARITUENAK, ORAIN HEMEN



Reconocimiento SIMA 90
 al sistema
 R.E.I.
 Medalla de Oro



Reconocimiento EIMA 89
 a los sistemas
 R.E.I., S.B.A.
 y Cabina design.



Diploma
 AGRITECHNICA 89
 a la innovación tecnológica
 por el sistema R.E.I.



Diploma ROYAL
 SHOW-ROBERT
 BARROW-90
 al sistema R.E.I.




Novedad Técnica
 SOBRESALIENTE
 al Sistema de Regulación
 Electrónica de la Inyección

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 581021 - IRURITA



Eguerdiko 1etan: »JATOR»
 orkestaren soinualdia.
 8etatik 10ak arte eta
 12,30etatik 3,30ak arte:
 Dantzaldia eta BESTAREN
 AKABALLA.



Talleres Onena

PVCKo ZURGINDEGIA



Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe



ESTANQUIDAD



AISLAMIENTO



DURACION



NINGUN
 MANTENIMIENTO



Zaldubia Industrialdea IRURITA Tfnoa. eta fax-a 948- 58 05 32

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi
Gibel-gizena
Urdai azpikoa
Ahate-hegalak
Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07
BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako
Iturria anaiak

👉 ESKUALDEKO AUKERARIK HAUNDIENA

GRES ETA AZULEJOETAN

👉 AZKEN MODELOAK ERA GUZIETAKO PREZIOETAN

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN

Hiru auzotan kloradore elektronikoak paratu nahi dira

Bitartean, hauek subenzionatzeko solasean ari da Udala Nafarroako gobernuarekin

IBAN ISASI

Ituren, Lasaga eta Aurtiz auzoetan kloradore bana paratzeko asmoarekin dago Udala. Udalaren nahia, kloradore hauek, sistema elektronikoaz gidatuak izatea da, bertzeak egunero behar bait dute norbait kloratzailearen neurriak ikusteko. Arazoa, prezioan dago: elektroniko bakoitzak, 500.000 pzta balio du, guztira milioi t'erdia. Halere, Nafarroako gobernuak guztira 130.000 pezetarekin bakarrik subenzionatzeko asmoa omen du. Orain solasean ari dira Udala eta Nafarroako Gobernua.



Garai batean kapilla zenean haurrak jostatzeko estalpea eginen dute

Aurtizko ostatua...

maiatzaren 11ean adjudikatu zen probisionalki, pliegoan, turismoa bultzatzeko eta kirol ekintzak

egiteko proposamenak agertzen zirelarik. 10 urtetarako definitiboki adjudikatzeko hurrengo udal plenora itxoin beharko da.

W ttipi-flash

□ **Irrati** Mankomunitatea sortzeko Doneztebe-ko udaletik sartutako mozioari baietza eman zitzaien udalbatzan.

□ **N-121** errepidea moldatzeko, aurtengoan 1.500 milioi gehiago inbertitzea eskatu zaio Nafarroako Gobernuari.

□ **485** biztanle zituen Iturennek urte hasieran udal eroldaren arabera. Haue-tatik, 243 gizonezkoak ziren eta 242 emakumezkoak. Iazkoan, garai berean 491 biztanle eta duela bi urte, 494 geunden.

ZUBIETA

JUAINAS

Moda berri bat balitz bezala, Guineseko errekor berri bat nahi baguenen antzera **10 hilabetetan hirugarren dimisioa** dugu hau, Jon Mikelek aurkeztua. Portzentaietara jokatuz gero, lau urtetako epealdi barruko lehen urtea bete baino lehen, zinegotzien % 43a berritu zaigula ikusi ondoren –guztiak lan arrazoiak direla mediozera pentsatu behar: udal lana izugarri nekosua eta desatsegina egiten zaigu



zubietarrei edota katxondeoan gabiltza. Dena dela eta jakinaren gainean egon zaitezten, hurrengo gauzatzearekin –oraingo mar-

txan pare bat hilabete baino ez dira behar izanen–hauteskunde berriak egiteko proposamena eginen dut, nik, hasierako zerren-

detatik gero eta urrunago bait gaude.

Eta baliteke, –fija zaitzte baliteke idatzi dudala– **ttipi-ttapa** berri hau irakurtzen ari zaretenikan “ostatua” emana edo emate puntuan egotea. Gustokoak izango ditugu? Guztiena ez! Gutxiegi eta gehiegi ordainduko dute, seguraski; garestiegi eta merkeegi arituko dira, fundamentorik gabe, sobera serio, aberastu nahiean, iji-ja ajajaka, malamaneran, eteze, eteze...

Hartu duzuenok, **animomo!!!**

LEITZA

Maiatza eurite, urtea ogite Maiatza hotz, ez gari eta ez agotz

ANTTON ERKIZIA

Maiatza, edo loraila, ostoila... asto-hila ere.

Maiatza hotz, urtea zorrotz. Maiatzean euri, ondoan uztak jori. Maiatza idorte eta abuztua lohi, uztarik batere, ez berde, ez zohi.

Zorioneko maiatza: maiatz belar, maiatz pazko. Maiatzean hasitako ilberrian, altza moztu. Maiatzako intzak urria balio du. Maiatzako zizea, heriotzako giltzea. Maiatzean kukuak kuku, diruz bi zaku banitu !

Ttipi-Ttaupadak:

□ **Zabor bilketaren subasta:** Leitza-Areso-Larraungo zabor edo basurak biltzea subasta atera da, bost urtetako.

□ **Udan igeri lekuak** alokatzea ere enkante-lehiaketara atera da. Ekainaren 1.a arte.

□ **Egonaldiak famili euskaldunetan:** euskara ikasten ari den jendea zuen etxean denboraldirako hartu nahi bazenute, izenak eman Udaletxean.

□ **Bost-Kirol txapel-**

ketan, "Beti Mozkor" izan da ekipo irabazlea. Eta "Metaziri" bigarren.

□ **Lehen Komunioak:** maiatzaren azken igandean. Eta haur besta, Jau-nartzea egin behar dutenentzat eta egin behar ez dutenentzat ere.

□ **San Migelen etorre-ra,** bezperan (maiatzaren 30ean).

□ **Xakea-ajedreza:** azken larunbata hontan Santiago Carasusan (Nafarroako xake txapelduna) eta Antonio Lizarri ziren aritzeak "Aurreran".



Kultur Astean izanen da...



ANTTON argazkiak

...zer ikusi

LEITZAKO XIV. KULTUR ASTEA

(Programaren II. Zatia)

Maiatzak 22

Haurrentzat **ANTZERKIA**, gazteen **BERTSO PAPER** kanporaketa, **TXOKOLATADA**, "Asketa" eta San Fermin **ABESBATZAK**, eta "Los chicos del barrio" **FILMA**.

Maiatzak 23

IBILALDIA NEURTUA, "In Fraganti" **UMOREZKO ANTZERKIA**, eta **DULTZAINEROAK** kalez kale.

Maiatzak 24

XII. ESKULANGINTZA ERAKUSKETA

11etan: Erakusketa zabalduko da.

1etan: Tolosako **BANDA** plazan.

2,30etan: **HERRI BAZKARIA**.

•Bertsolariak, **MURUA** eta **TELLERIA**.

•**TXARANGA**.

7etan: Dantzaldia **TOLOSAKO** bandarekin, eta zozketa.

Udaletxeko aretoan aste osoan: **Liburu eta disken azoka**, **Leitzako toponimia**, **maketaren erakusketa** eta **zeramika erakusketa**

Aurrerako aretoan aste osoan: **loreak** (M^a Jose Astiz), **harria eta zura** (Mikel Lizarraga eta Kontxi Arrizurieta) eta **kuadroak** (Pili Aramendi).



...zer dastatu...



...zer ikasi.

Arozena, Silveira, Sarasua eta Amurizaren bertso saioa eginen da ekainaren 6an

ESTEBAN AROZENA

Bertso eskolak antolatu duen III. Bertso-paper lehiaketaren sarituen berri ekainaren 6an emango da, eta festa horri jarraipena emateko ez da noski, bertso saio bat entzutea baino gauza egokiagorik izango. Horregatik, gaueko 10,30-etatik aurrera eskoletako komedorean ospatuko den saio honetan puntako lau bertsolari izango ditugu: Manolo Arozena, Xabier Silveira, Jon Sarasua eta Xabier Amuriza.

Aurreko urtetan bezala lehiaketaren 3 mailetako irabazleek beraien lanak kantatuko dituzte, ondoren, aipaturiko saioak hasiera



Arozena eta Silveirak parte hartuko dute bertso saioan

emango duelarik. Antolatzailak esan digutenez, sarrerarik ez da kobratuko.

□ **Guraso elkarteak** eta Udalak bat egin dute irakaskuntzaren erreformak (LOGSE) gure herrian ekar ditzakeen ondorioei

aurre egiteko asmoz. Dagoeneko gurasoek dakiten bezela, erreforma hau dela eta Goizueta eta Aranoko haurrak 12 urte bete orduko beste herriren batera eramateko arriskua bada.

Ez dago esan beharrik

noski, hau onartzeko asmorik ez dagoela Goizuetan eta irtenbide bat aurkitzearen irakasleek eta gurasoek txosten zabal bat prestatu dute ikuspuntu guztiak aztertuz, 16 urte arteko ikasketa zikloa herrian bertan burutzea delarik horren helburua.

Duela egun batzuk Herriko Etxean egin zen pleno berezi batean Udal osoaren adostasuna jaso zuen txostenak, eta ondorioz, guraso, udal ordezkari eta irakasleekin osatutako taldea egunotan elkarriketatuko da Iruñean Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Zuzendari nagusiarekin.

ARESO

Santakruz eguna

Urteroko bisita berri zen maiatzaren 10ean

JUANA MARI SAIJAR

Ohiturari jarraituz Santakruzera egin zen urteroko bisita. Aste guzian eguraldi txarra egin bazuen ere, igandeko eguraldi onak jende dexente animatu zuen bertara. Bidea ongi zegoen eta lasai lasai, gurutze bidea eginez, igo ginen bidean zehar jende gehiago elkartzen zen bitartean.

Meza polita antolatu zen eta maiatzan gaudenez, haurrek loreak eramane zi-



Santakruz ermitako aldarea.

tuzten eskeintza modura. Meza ondoren, gosari tti-

kia prestatua zegoen denontzat, nahiko gazta, ardo

eta ogiarekin. Egonaldiaren ondoren, buelta etxera.

BAZTAN

Eguraldi onarekin, belar eta baratze lanetan fuego

Bertzalde, jubilatuek Kultur Astea burutu zuten Elizondoko egoitzan

JOSEBA

Nekazariak ensilatzen ari dira joetake eguraldi onarekin batera eta bertzaldetik baratze lanei ere gogor ekin diete, berandu xamar bada ere. Lanbide honetan, eguraldia baita nagusi.

Jubilatuen Kultur Astea

Elizondoko egoitzan maiatzaren 9tik 16a bitarte kultur astea burutu zuten jubilatuek. 9an, Herri kirolak (Amaiur eta Basaburua taldeen artean), 10ean Irurritako dantzari taldearen saioa, 11an Kaxianoren kantaldia, 12an Javierrera bidaia, 13an txistorrada Josetxo akordeoilariarekin, 14ean hitzaldia Iruretagoiena medikuak emana, kantaldia Erramun Martinekorenarekin eta 15ean antzerkia. 16an Fagoaga eta Elizagoien bertsolarien saioa, herri kirolak Saralegirekin eta Doneztebeko Kurkuxa taldearen saioa. Egunero bideo emanaldiak ere izan zituzten.

Irurritako bestak

Irurritako bestak hasiera emanen diote aurtengo

Eguraldi ona probetuz, zahar eta gazteak gogor lotu dira baratze eta ensilatze lanei.



Berroetako eskola zaharraren teilatua auzolanean moldatuko da. Horretarako teilak, Udalak paratu ditu.

besta sasoiari. Hemendik aintzina denak erraldoan etorriko dire.

Frontoia, hala ere, oraindik ez da seguraski

bestetarako estrenatuko, gaur egun zenbait lantxo falta baitire. Dena den, ekaina inguruan estrenatuko omen da.

W ttipi-flash

□ **Nafar** bertsolarien bilgunea izan genuen Elizondo maiatzaren 16an. Goizez, Arbizu, Leitza, Goizueta eta Bortzirietako bertso eskolako neska mutikoak bildu ziren eta arratsaldeko 5etan txapelketaren balorazioa eta liburuen banaketa egin zen, ondoren denak elkarrekin afaltzeko.

□ **Irurita** eta Zozaiako karrikak moldatzeko 1.050.000 pezetako dirulaguntza eman du INEMek.

□ **Amaiurko** plaza auzolanean moldatzeko milioi bat balio duen materiala eskeini du Udalak.

□ **Berroetako** eskolaren teilatua moldatuko da auzolanean.

□ **Legateko** kaskoan dagoen antenan, ETBkoak obrak egiten ari dira zenbait hobekuntza tekniko sartzeko.

□ **Baztango** Udalak Lizartzu mendiko sarrera ireki zuen maiatzaren 15ean. Aritzakun aldeko paraje honetan, ardiak, behorrak eta behiak sartzen dituzte interesatu guztiek.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**Udako arropa eta jantzieta
behar duzun guzia**

Baztandarra kooperatibak Asanblada orokorra egin zuen

Iazkoan 450 milioitako dirutza mugitu zuten sarrera-irteeretan

Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko 345 nekazari inguru biltzen dituen Baztandarra kooperatibak maiatzaren 9an burutu zuen bere urteroko Asanblada Orokorra.

Iazko balantze ekonomikoa egiterakoan, "ezen benefiziorik sortu" erraten du bertako idazkaria den Javier Urrutiak. Guztira 450 milioi, bai diru sarreteretan eta bai gastuetan. Sarrerak gehien bat salmentetatik lortzen dituzte, pentsua, ongarria, haziak, baita farmazia beterinariatik eta errepuesto dendatik. Gastuetan, bertan lanean dauden 7 langileen soldatak, mantenimendu gastuak eta inbertsio be-



rriak sartuko liratekeen.

Aurtengoan, zerbitzu berriak eskeini nahi dituzte kooperatiban, horrela, 35 milioi kostatu den almazen berria akabatu berria dute eta belaia hautsi gabe zuzenean ereiten duen maki-

na bat -resembradora- erosteko proposamena onartu zuen Juntak. Hau, 15 kidek osatzen dute (Baztango herri bakoitze-ko bat) eta Jose Joaquin Azkarate Aniztarra da bertako lehendakaria.

W ttipi-flash

□ **Arraiotzko Herri** kirol taldea sortu da berriki. Honela, sokatiran 5 talde daude Baztanen eta 3 frogak konbinaturako. Lehendabiziko norgehiagoka hilaren 16an izan zuten Lesakan 640 kilotako sokatira txapelketan.

□ **Ikastetxe** desberdinetako aurreinskripzio epea zabalik dago maiatzaren 26a bitarte. Inprimakiak ikastetxetan bertan jaso behar dira.

□ **M^a Jose Arribillaga** Garaikoetxea izanen da udal interbentore berria urte batez, egindako frogetan puntuazio altuena lortu ondoren.

ARLA

ARDOTEGIA

Ardo botilatua
eta botilatu gabea

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

FZ

FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK



Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

ERRATZU
OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

molino

OINETAKOAK

Zure oina zabala edo
problematikoa bada,
neurria egindako
oinetakoak baina hobeak
aurkituko dituzu, moda
modakoak.

P^a Colon 29, 943-611266
IRUN

ZUGARRAMURDI

15 egunetan hiru pertsona hil zaizkigu

Bertzalde, udal erabaki garrantzitsuak hartu ziren azken bileran

MARGARI eta KORO

Berriz ere dolua dugu: 15 egunetan 3 pertsona hil baitzaizkigu. Gainera, hauetatik bi, Martin eta Pablo, famili berekoak. Duela urte t'erdi Luis M^a eta Javierrekin bizi izan ginuena berriz ere gainera etorri zaigu. Kolpe haundia izan da.

Udal akordioak

□ **Baztan**, Malerreka eta Bortzirietako Udalek hartutako akordioak ikusiz, Zugarramurdikoak eraba-

ki zuen Nafarroako Gobernu eta Parlamentuari N-121koz destinatua den dirua 1.500 milioietan gehitzea eskatzea, uste delakoz beharrezkoak direla behingoz Belateko tuneleko lanak hasteko eta baita ere karretera honetan diren toki txarrak konpontzeko.

□ **Bertiz** aldeko Konsozio turistikoaren bide-ragarritasun estudioa aztertu ondoren, Konsozio huntara elkartzea eta aurrekontuan sartu estudio hori egiteko behar den di-



MARGARI

ria erabakitzen da.

□ **Zonalderako** bertze albaitari eta administrari

laguntzaile bat eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI



trebeki

jostailuak - eskulanak
Sebastian Errazu 1(943) 61 83 97 IRUN

Erakusten dugu:

- ◆ Makrame
- ◆ Tridimensional
- ◆ Saskigintza
- ◆ Telar
- ◆ Eskaiola margotu
- ◆ "miga de pan"

**Es kisaroi
jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

MENDI HOTELA



DONAMARIATKO BEHTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

V. Motocross txapelketa, ekainaren 7an egingen da

VIII. Mus txapelketa bukatua eta X. pala txapelketa hasi berria dugu

ALIZIA OLAIZOLA

Urdazubiko V. Motocross txapelketa burutuko da ekainaren 7an. Nafarroako txapelketarako baliogarria den froga honek mugaz bi aldetako hoberenak arituko dira, bertzeak bertze, Mikel eta Jabier Zabala, Mikel Purroi, Stephane Dasse, Bruno Moulinier eta Marc Velez.

8. mus txapelketa

...maiatzaren 2an bukatu zen, larunbat arratsan egingez azken parti-

dak. Txapeldunak, Juan Bengoetxea eta Domingo Borda izan ziren eta bigarren postuan Policarpo Jaurena eta Patxiku Bengoetxea geratu ziren. Ondoren afaria eta dantzaldia Modestorekin.

X. Pala txapelketa

hasi da eta guzira 12 bikote ari dira bi kategorien artean, herrikoak eta baztandarrak izanez jokariak. Finala bestetan izanen da, maiatzaren 30ean. Bestak 27tik 31raino izanen dire, berantago beraz.



Urdazubiko VIII. mus txapelketan txapeldunak, Juan Bengoetxea eta Domingo Borda suertatu ziren



KIWI BAZTAN, S.A.

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENeko SALMENTA

MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Irurritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

NARBARTEKO
HERRIKO
OSTATUA

MENUAK eta KARTA

San Andres 1 • NARBARTE



Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

B RADIO
BIDASOA

* Eguraldi honekin,
nola idortzen duzu
zure arropa?

* Arropa
lehorgailuetan
aukera haundia

* 3 urtetako
garantia

* «Finex»
finantziario berezia

Kantonberri 1
BERA ☎ 630377

EZKONTZAK

Ramon Telletxea Pellejero eta **Ana Isabel Mendigutxia Zoziaia**, Lesakakoak, maiatzaren 2an.

Fco. Javier Otxandorena Juanikotena eta **M^a Jesus Barreneixe Lertxundi**, Lekarotz eta Elizondokoa, apirilaren 10ean.

Braulio Elizetxe Elizetxe eta **Carmen Santxotena Otondo**, Amaiur eta Erratzukoa, mar-28an.

Martin Agirre Ugarte eta **Isabel Sarratea Otxandorena**, Oieregi eta Almandozkoa, ap-25.

Ramon Elizetxe Elizetxe eta **Resurrecion Elizagoien Etxegarai**, Amaiur eta Arraiozkoa, maiatzaren 9an.

Juan M^a Madariaga Bergara eta **M^a Jesus Iriarte Irureta**, Arantzeta eta Sunbillakoa, maiatzaren 9an.

Sara Danboriena Arburua eta **Adela Gonzalez Iturria**, Etxalar eta Elizondokoa, maiatzaren 9an.

Juan Remon y Callao eta **Lourdes Barrenetxe Iantzi**, Kaseda eta Berroetakoa, maiatzaren 9an.

JAIOZAK

Asier Zelaieta Tomasena, Etxalarren, apirilaren 19an.

Alex Abuin Yepes, Lesakan, maiatzaren 1ean.

Maidier Mousseau, Saran, maiatzaren 2an.

Sandra Iturria Tarazona, Arantzian, maiatzaren 5ean.

Edurne Iribarren Rekarte, Urrotzen, maiatzaren 4ean.

Ana Isabel Sobrino Artazkoz, Elizondon, apirilaren 11an.

Antxon Jauregi Rekalde, Amaiurren, apirilaren 20an.

Ainhoa eta Iñaki Almandoz Elizetxe, Erratzun, apirilaren 27an.

Iñigo Sanz Uriz, Elizondon, maiatzaren 5ean.

HERIOTZAK

Fulgentxi Gortari, Zugarramurdin, apirilaren 24ean, 81 urte.

Pablo Arburua Etxeberria, Zugarramurdin, maiatzaren 5ean, 30.

Javier Ado Altzugarai, Lesakan, maiatzaren 9an, 79 urte.

Felipe Garcia Suarez, Lesakan, maiatzaren 10ean, 74 urte.

Jose Alzuri Ezkurra, Sunbillan, apirilaren 20an, 80 urte.

Simon Sanz Etxenike, Donezteben, apirilaren 26an, 92 urte.

Eusebio Calvo, Elizondon, apirilaren 17an.

Juan Bautista Eskudero Huizi, Goizuetan, maiatzaren 3an, 60 urte.

Jose Taberna Iparragirre, Goizuetan, maiatzaren 9an, 66 urte.

Isabel Galarza Galarza, Goizuetan, maiatzaren 9an, 83 urte.

Natividad Ganboa Askebereta, Elizondon, apirilaren 30ean, 93 urte.

Concepcion Irigoien Urrutia, Berroetan, maiatzaren 2an, 82 urte.

Ildefonsa Arrizurieta Indaburua, Arizkun, maiatzaren 6an, 88 urte.

Julian Ugarte Gortari, Oronotzen, maiatzaren 6an, 71 urte.

E · T · X · A · L · A · R

UDABERRIKO KULTUR EGUNAK

EKAINAK 5

• 7,30etan **HITZALDIA**
Gaia: Alkohola
Iñaki Arrizabalaga
Eskola Zaharretan

EKAINAK 7

• 11etan **BORTZIRIAK**
BAZTAN
MALERREKAKO
I. GASNA LEHIAKETA

• 12etan **Lesakako Korala**

• 2etan **Sari Banaketa**

• 2,30etan **HERRI BAZKARIA**
Bertsolariak:

M. Arozena eta
B. Elizagoien

• 5etan **KUKUBILTZO**
Karrika Animazioa

EKAINAK 12

• 7,30etan **MAHAI INGURUA**
Gaia:
Zonaldeko egoera
sozioekonomikoa
(LAB, ELA, EHNE,

Etxalarko Alkatea eta
Cederna-Gurelur-eko
ordezkari bat.

EKAINAK 14

• **HAURREN EGUNA**

Eskulan Erakusketa
Ipuin Lehiaketa
Bazkaria
Antzerkia

Burutu berria da
Leitza-Goizuetan
soziolinguistika
ikastaroa.

Antonio Txibite,
«Txepillo», Zintrue-
nigoko semea, izan
da ikastaroaren
koordinatzailea,
bera bait da Leitza-
deko euskara zerbi-
tzuko teknikari,
azken bi urteotan.
Goizero Lekun-
berrin aurki gene-
zake (504400 tele-
fonoan) “behar
dutzen informazioa
eta laguntza emate-
ko eskuzabal”


ttipi-ttapa. *Ikastaroa
ona, beraz?*

TXEPILLO. Ona, oso
ona. Gaur egun gai hortaz
dauden irakasle hoberenak
pasa dira, instituzioetan lan-
nean ari direnak, eta insti-
tuzioetatik kanpo ari dire-
nak. Punta puntakoak.
Entzule eta ikasleek ere
arretaz jarraitu dute: maixu,
zinegotzi, euskaltegiko
irakasle, guraso elkartetako
arduradun... Horiengana
iritsi nahi genuen, eta iritsi
egin gara. Bikain.

ttipi-ttapa. *Eta orain,
horrek zertarako balio di-
zue? Zeren kaleko jendeak
hori galdetuko dizue: zer
ikasi-ikusi duzue?*

TXEPILLO. Batipat,
teori nagusi desberdinak

Txepillo: «Soziolinguistika ikastaroa Nafarroan egin den ederrena izan da»



hizkuntzataz: nola joaten
den galtzen, zergatik, non-
dik hasita, bere statusa eta
hartzen dituen espazio so-
zialak, nola berrindartu.

ttipi-ttapa. *Teoriak. Eta
praktikarik egin duzue?*

TXEPILLO. Bat, na-
gusia: kaleko neurketa.
Erabiltzeko izaten dira
hizkuntzak, jakitea ez bait
da aski, egiaz erabiltzen
den, jendeak mintzatzen
duen jakin behar izaten da.
Eta noiz, eta non erabiltzen
duen, eta hori neurtu, eta
hori nola egin.

ttipi-ttapa. *Eta zuekin
duzue?*

TXEPILLO. Bai, jen-
dea bera ohartu gabe, neur-
tu egin dugu zenbateraino
erabiltzen den euskara

egunoroko bizitzan, Lei-
tzan, Areson, Goizuetan eta
Aranon.

ttipi-ttapa. *Eta?*

TXEPILLO. Txillarde-
gik berak galbahitu eta az-
tertu zituen jasotako da-
tuak, eta, bere hitzetan,
«oraindik» euskararen
osasuna ona da hemen.
Hala ere, 26 urtetik go-
rakoan artean, euskararen
erabilera jeisten da nahiko.

“
Gauzak egin eta
euskaraz eginen
dituen kultur talde
zabala sortu dugu”

Ondorio horiek eta beste
franko ere ateratzerik izan
da.

ttipi-ttapa. *Ez dago ba-
tere gaizki gauzak zehaz-
ten jakitea.*

TXEPILLO. Bai, gau-
zak neurtzen jakin behar
da. Inpresioak, usteak as-
kotan ustelak izaten bait
dira. Egin dugun neurketa
hau erdi-praktikan egin
izan da. Orain beste bat
eginen dugu, gisakoa, bai-
na zorrotzagoa, non gauden
eta nora goazen jakiteko,
aldealdera.

ttipi-ttapa. *Beste emai-
tzik eman du ikastaro ho-
rrek?*

TXEPILLO. Bertan
erabaki bat ere hartu izan
dugu, euskal kultur talde
bultzatzaile-eragile bat
martxan ezartzea...

ttipi-ttapa: *Beste bat?
Bilera gehiago?*

TXEPILLO. Indarrak
eta ahaleginak batuko di-
tuen taldea, koordinatzaile-
a, praktikan gauzak eus-
karaz antolatuko dituen
taldea (euskarak oraindik
lortu ez duen estatusa lor-
dezan), eta gainera euska-
ra despolitizatuko duena,
politika koloreen gainetik
jarriko duena.

ttipi-ttapa. *Hala izan
dadila.*

TXEPILLO. Hala da,
dagoeneko erdi-martxan
bait dago.

ANTTON ERKIZIA

Urtero Laxoa Txapelketaren edizio berriak jokatzea arras baliagarria jokuaren iraupenerako

XIII. edizioa honetan Baztan Malerreka zortzi taldek parte hartzen dute

Lehen, pilota joku guziak soropiletan jokatzen ziren, eskuz zein larruzko guantearekin. Plaza ireki hauetan, denborarekin, modalitate franko sortu ziren, batzuk poliki-poliki mende honetan ia galdu egin direnak. Aintzinako modalitate horien artean mantentzen den zaharrenetakoa –zaharrena batzuren ustez– laxoa dugu, gaur egun Baztan eta Malerreka aldean mantentzen dena, zaletuen ahaleginei esker eta udan, igande eta herriko besta egunen arrimuan antolatzen diren partiduei esker. Izan ere, denborarekin, laxoa galtzen joan da, batez ere jokatzekeo behar diren plaza ireki aunitz bota edo bertzenaz hauei ezker pareta paratu diotenean.



Argazkia: AGESTA

Batzuk diotenez, bertalde, laxoan du bere jatorria erremonteak berak.

Berriagoa dugun historiari errepaso bat emanez, ezin atzendu Jesus Jaimearena, Iruritako apaizak, laxoa eta joku-garbiren zaletasuna berpizteko izan duen garrantzia. Izan ere,

laxoari dagokionez, 1961ean jokatu zen Baztan Errekako I. Laxoa Txapelketa, lau urtez segidan. Gero, 1980a bitarte ez zen txapelketarik jokatu eta Arraiotzek, Iruritak, Doneztebek, Oitzek... gorde zuten laxoaren afizioa. Tarte honetan, bestetan eta

egun seinalatueta jokatu ohi zen.

Laxoa Elkartea

1980an, kirol hau bul-tzatzekeo ahaleginetan, Laxoa Elkartea osatu zen. Urte berean, 1980an hain zuzen ere, Baztan-Errekako Laxoa Txapelketa antolatzeari ekin zitzaion

berriro ere, eta geroztik hutsik egin gabe, urtero antolatu da.


Aurtengoa, XIII. edizioa

Ondorioz, aurtengo hau XIII. edizioa dugu eta zortzi taldek parte hartuko dute. Irurita, Doneztebe eta Oitzek bina talderekin eta Arraiotz eta Donamariak banarekin. Elbete-Elizondotik aurtengoan inor animatu ez bada ere, Laxoa Elkartekoek gustora daude jende gaztea animatu dela ikustean. Gauzak pentsatuak dauden plazoetan betetzen badira, ekainaren 28an jokatu da finala Iruritako plazan.

Bertzalde, uztaila, abuztua eta irailako hila-betetan zehar, urtero antolatu ohi den Jubenil mailako txapelketa jokatu da, eta antolatzaileen hitzetan, aurtengoak arras espektatiba onak eskeintzen ditu parte-hartzeari dagokionez.

Erremontearen harrobia

Denborak erakutsi duenez, erremonteko hainbat figura laxoan jokatuz hezi dira pilota munduan. Are gehiago, duela urte guti guantearekin jokatuz arras maila ona erakusten zuten hainbat gazte, erremonteko profesional mailan estrenatu dira edota abiatzeko bidea hartu dute. Hala ere, Laxoa Elkarteko partaideak arras kexu daude Pilota Federazioak eta, Laxoa gehiago ez promovizatzeagatik.



Aurtengo txapelketan, 50 urteko jokalaria eta 16-17 urtekoa arituko dira

Argazkia: AGESTA

Jokuaren ezaugarriak

Talde bakoitzean 4 jokalaria daude: sakalaria, sakea egiten duena; berezia; eta bi kuartoak. Jokalariek larruzko guanteak eramaten dituzte: Guante motz edo kuartoa; guante erdia edo berezia eta guante haundia edo sakalaria.

Jokalariek aparte, txaxaria dago, tantuak, jokuak eta eskasak kantatzen dituenak. Sakea botarritik egiten da eta errestoa, airez nola lehendabiziko boteaz egin daiteke. Tantua modu ezberdinez lortu daiteke. Falta da pilota ertzetan dauden 'eskas' izeneko marretatik kanpo botea eginez gero eta baita erdian dagoen eskas ere gaintitzen ez bada edota

gibelean dagoen paretatik gora joaten bada pilota. Tantoa da zelaia alderik alde pasatzea ere.

Modu berean, eskasetik ateratzen bada pilota, barnean botea egin ondoren, bigarren jokaldi bat egiten da. Horretarako marra bat paratzen da ateri den lekuan eta bi taldeek aldatzen dute tokia zelaian. Jokua seinalizatutako marrran kokatzen da eta marra pasako duen taldeak irabaziko du puntua. Lehen 10-12 jokuetara egiten zen partida, baina azken urteotan 9etara jokatu ohi da. Joku bakoitza zenbatzeko orduan, tenisen antzera egiten da: kintze, treinta, koarenta eta jokua.

Azken urteotako txapelak

1980an..... Irurita
1981ean..... Doneztebe
1982an..... Doneztebe
1983an..... Oitz
1984ean..... Oitz
1985ean..... Doneztebe
1986an..... Doneztebe
1987an..... Doneztebe
1988an..... Oitz
1989an..... Doneztebe
1990ean..... Oitz
1991an..... Irurita

Laburbilduz, azkeneko hamahiru ediziotan Doneztebek 6 aldiz eskuratu du txapela, Oitzek 4 aldiz eta Iruritik 2 aldiz.

Harrigarria gertatzen da, beharbada, konstantzia haundia erakutsi duen Arraiotzko taldeak, txapelarik inoiz lortu ez izatea.

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Maiatzaren 29an Nafarroako Itzuliaren etapa nagusia Leitzan («Aizan» kaxkoan)

Horren giroan, zikloturismo eta txirrindulari elkarteak sortzera doazte herrian

Leitza aldean, Jesus Mari Zabaleta, Luis Vicente Otin, «Super», «Txarli» Sagastibeltza, «Karajo»... joeta ke ari dira lanean, txirrindulari zaleek pesta haundia bait daukate maiatzaren 29an. Egun hortan, Nafarroako Itzulia (Nafarroako «Vuelta») iristen da Leitzara. Aurtengo Itzuliaren etapa nagusiak hemen dauka bere helmuga, meta, «Aizan» gainean, 930 metroan.

Lan haundia hartu dute hori dena prestatzen, beraien saiatuko omen dira baina laguntza ere beharko dute gauzak ongi ateratzeko, urtero nahi bait dute Leitzara ekarri etapa nagusia (baina hau ez esan inori).

Txirrindularien

Elkartea:

**zikloturismoa,
mendi bizikleta...**

Ez pentsa gero «gauza berria» denik txirrindularitza Leitzaldean. Lehen ere antolatu izan dira etapa helmugak (aspalditxo hontan ez ordea), eta herri honek eman izan ditu ziklista batzuk: Otin, Zabaleta...

Kimu berriak bilatu eta indartu nahi dira. Lehenetik badago «eskola» eta ekipoa, Baztan-Bidasoa-

Malderrekakoekin batean aritzen dena. Baina...

Baina Elkarte sendoa bat behar omen da egin herrian bertan, txirrindulariak eta beren guraso eta zaleak batu eta koordinatuko dituen Txirrindulari Elkarteak. Eta hori sortzera doazte, Nafarroako Itzuliaren giroan: txiki eta koxkorren ekipari eutsi eta bultzatu

tuko diona, eta igandetan zikloturismo irteera batzuk antolatzeko (badago da-goeneke 10-12 fitxa eginak), behar bada «mountain bike» talde txoa ere osatzeko... Bi hitzetan: bizikleta gainean dabilzanak eta mundu hori gustokoa dugunok (zale asko omen daude Leitzan) elkartuko gaituen soziedade bat.



"Atsaldeko 6ak aldera iritxiko da itzulia, eta, bi ordu lehenago "igoera popularra" antolatu asmo dugu herritik goiko gainera" (Antolatzaileek diote)

ANTTON




Otin-en gurgipilaren arrastoan

Luis Vicente Otin, leitzarra, gaur egun postaria. Bost urtez txirrindulari profesionala izana da. Espainiako Itzulia (hiru aldiz), Tour/85, Pariz-Niza...

Jesus mari Zabaleta, 7 urtez amateur. Open Valles Mineros, Vuelta Asturias. Egun dendaria eta leitzar kadete taldearen eragile.

«Txarli» Sagastibeltza...



HERRI KIROLAK

Txapelketa ugari erabakiko dira Elizondon hilaren 24ean



Maiatzaren 24ean burutuko dira Elizondon Nafarroako ingude, gurdi, lasto, txingak eta zaku txapelketak, baita olinpiadetako exhibiziora joateko balioko duen aizkolari txapelketa ere.

Bertzalde, 640 kilo azpiko sokatiran, ekainaren 14ean Sunbillan jokatu den finalerako txartel bila hasi dira taldeak; hilaren 16an aritu ziren Lesakan eta 31an burutuko dute bertze semifinala Iruritan.

TXIRRINDULARITZA



Uda hurbiltzen den neurrian, gero eta gehiago dira gure errepideetan antolatzen diren txirrindulari laisterketak. Hilaren 16an, Beran jubenilentzako eta Leitzan eskoletako haurrentzat karrerak egin ziren. Hilaren 30ean eta 31an berriz, herriko bestak direla eta, Iruritan izanen dira eskolakoak (Baztandarrak antolatua) eta jubenilak (San Migel elkarteak antolatuta).



Hilaren 26an bukatzen da Bortzirietako futbito txapelketan apuntatzeko epea

Beti Gazte elkarteak antolatzen duen Bortzirietako futbito txapelketan izen emateko epea hilaren 26an bukatuko da. Izen emateak Lesakako Kaminero ostatuan egin behar dira, talde bakoitzak 1.500 pzta utziz. Taldeko 8 lagun apuntatu daitezke eta gehienez 3 federatu. Txapelketa kopa

sisteman jokatu da. Gogoratu, iazkoan 27 talde aritu zirela eta argazkian agertzen den Kaminero taldea suertatu zela txapeldun.

Bertzalde, Bortzirietako gaztetxoak ere beraien txapelketa izanen dute, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailan, baita neskak ere.

Hamabostaldiko jokaldiak



Julian Retegi Eratsungo pilotaria.

Bere 38 urtetan bukatua dagoela erraten zutenak ixilerazi zituen berriz ere, Arretxe bezalako pilotari haundi bat, aurrean, atzekaldean eta erdian ere gaingitu bait zuen.



Arretxeren final erdiko pilotak.

Baztanen pilotan ikasitako mutila ez zen kontent agertu aldeztu aurretik finalerdiko pilotekin. Halere, partida galdu ondoren ez zuen inolako aitzakirik paratu.

Etxebizitzak

• **Malerreka** edo Baztan aldean etxe bat alokatuko genuke. 943 - 526380 ☎ (Javi).

• **Elizondon** pisua salgai, 3 logela, jangela, sukaldea, bista arras onak. Txokoton. Prezioa 6 miloi. ☎ 452048.

• **Beran**, pisu hutsa alokatzeko bilatzen dugu. ☎ 630072 (Ana).

Lana

• **Neska** bat interna bezala lan egiteko behar da. ☎ 943-631427 (Nekane, goizeko 10etatik letara).

• **Zurgin** lanak eginen nituzke (kutxillatzea, zepillatzea eta barnizatzea). ☎ 635136 (Pedro Mendikoa). Etxalar.

• **17 urteko** neska batek haurrak zainduko lituzke Beran. 630516 (Maitane).

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** lokal bat

traspasatzen da. Deitu 10tik letara eta 5etik 8etara 637410 ☎.

• **Grabatu** dituzun bideotan musika, tituloak eta efeko digitalak paratuko dizkizut. Baita ere bideo montajeak eta bideoak editatzen ditut. Prezio oso onean 450463 ☎. (Mikel).

• **Belaia** eskeintzen da, nahi duenak belarra egiteko. ☎ 450621 (Oitz).

Salerosketak

• **Bulego-mahaittoa**, ahal bada kajoiduna erosiko genuke. ☎ 451555.

• **Kamioi** bat lana eta guzti salgai. 452220 ☎.

• **Bi urtetako** behi bere aretzearekin salgai. 634074

• **Etxe zakur** gazte bat salgai. 451597 ☎.

• **Suzuki 125** motoa, 89an erositakoa salgai. 635039 ☎.

• **Seat 600** salgai, VI-A matrikula eta ITV pasatua. 599152 ☎ (arratsetan).

• **Yamaha YZ 250 "91"** motocross motoa salgai 425.000 pztan. Egoera onean. 635157 ☎ (Jon).

• **Komedoreko** armario

bat, mahai plegablea eta berari dagozkion 6 aulki Leitzan salgai. ☎ 510132 (eguerditan).

• **Zakur** collie lassie salgai. 6 urtetakoa, emea, lagun goxoa. ☎ 510132.

• **Egongelarako** armarioa bitrinarekin salgai. ☎ 630289 (8etatik aintzina).

• **Bateria** "Pear" markakoa konpletoa, "Paiste" platoak, 150.000 pztatan salgai. ☎ 637346 (Tomas).

Harremanak

• **Leitzako** Eburne, Ainhua eta Ebari zorionik beroenak zuen lagun partez.

• **Berako** Arantxa B.ri: zer moduz astelehenean? Ez pentsa ahaztu dugunik: Zorionak!!! Presta itzazu madalenak eta bikiniak...

• **Leitzako** Noeri: zorionik beroenak zure urtebetetzean eta ea orain arte bezain jator jarraitzen duzun (zuk dakizkizun bi).

• **Oitzko** Bitorrentzat: zorionak zure 24. urtebetetzean: muxu bero bat emazte eta semearen partez.

• **Leitzatik** zorionak aita Joxe Mariri (85 urte),

ama Bixentari (78 urte), izeba Mariari (82 urte), Fermina (80 urte) eta semea Joni (17 urte). Arantxa.

• **Aunitz** urtez zorionak, lau pote zor dizkizugu Xaskun. Bullosa irratien partez.

• **Leitzako** Imbrulirentzat bere 19. urtean zorionak. Lehen bezala segitu. Betiko lagunak. Simona beltza eta Telesfora. SIL.

• **Leitzako** Saliri zorionak zure 16 puxtarri urtebetetzean. Inbruli eta lagunak.

• **Elizondoko** Itziar Iri-sarriri zorionak zure 20. urtebetetzean. Ongi pasa Alizia Olaizolaren partez.

• **Mirian** Ruizi zorionak bere gurasoen partez urtebetetze egunean.

• **Beintzako** M^aJesus Bengoetxeari zorionak zure urtebetetzean. Muxu bat zure lagun partetik.

• **M^a Eugenia** eta Amaia (Carabanchel). Pabeko presondegian zuetaz oroitzen gara eta laister kalean ospatuko dugu herriaren eta gure askatasuna. Bitartean eutsi gogor eta jotake. Muxuak. Beltza. Orejas.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____ Tfnoa: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



Erreforma ikasketak

BATXILERGO BEREZIAK

Helburua:

- Unibertsitatean sartzeko prestatu
- Lanerako prestatzea, moduloekin konplementatuz gero.

Bi urtez egiten dira.

Modalitateak:

- Administrazio eta Gestioa (BAG)
- Tekniko Industriala (BTI)
- Natur Zientziak

Lanbide Heziketa II

- Administrari Adarra (4.5.)
- Metal Adarra (4.5.)

LANBIDE MODULOAK

Ikasketak eta lanaren arteko zubiaren papera betetzen dute, gazteak lanetan sartzeko laguntzen dutelarik eta gazteak ez ezik, helduak ere, berziklatzen eta bere heziketan aurreratzen laguntzen dutelarik.

2. Maila. Teknikari Laguntzaileak

- Erreparazio eta makinaren operatzailea
- Adm. eta Gestioan laguntzailea

3. Maila. Teknikari Ertainak

- Atzerriko komertzioa
- Makina eta Sistema Automatikoaren mantentzia.

INFORMAZIOA eta AURREINSKRIPZIOAK, MAIATZAN

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



INGELES IKASTAROA UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurten ere,
ingeles ikastaroa uztailan
goizez 9,15etatik 13,45 orduetara

APUNTATZEKO deitu 592006 Tfnoa

ZONALDEKO 1. GASNA LEHIAKETA

BORTZIRIAK / BAZTAN / MALERREKA

Etxalarren, ekainaren 7an, Igandea, goizeko 11etan

LEHIAKETAREN OINARRIAK

- 1.- Bortzirak, Malerreka eta Baztanen bizi diren artzai edo gasna egileak parte har dezakete.
- 2.- Ardi gasna txapelketa da.
- 3.- Egile bakoitzak gasna bakarra aurkez dezake.
- 4.- Gasna bakoitzaren truke 1.300 pzta. emanen da.
- 5.- Gasnak ekainaren 7an, goizeko 11ak baino lehenago ekarri beharko dira Etxalarko Pilota plazara.
- 6.- Sariak: 1.- 12.000 pzta eta trofeoa
2.- 8.000 pzta eta trofeoa
3.- 5.000 pzta eta trofeoa
- 7.- Gasnak, lehiaketa honen antolatzailen eskutan geldituko dira.

Informazio gehiago 63 50 20 Telefonoan

OHARRA: Nahi izanez gero, gasna gehiago ekar daiteke plazan saltzeko.

Laguntzaile:

GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA